

Energia-eraginkortasuna kontrolatzeko sistema Arrasateko Campusean

2009/05/26

Gaur egun energia elektrikoak eta energia aurrezteak garrantzi handia du potentzia kantitate handiz hornitzen diren enpresentzat. Oso garrantzitsua da non eta noiz kontsumitzen den jakitea eta elektrizitatea non xahutzen den jakitea.

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoan, Eraikuntzen Kudeaketa arloan, energia-eraginkortasunari buruzko azterketa bat egiten ari dira azpiegituren kontsumoak kontrolatu eta jaitsi ahal izateko, energia reaktiboa kontrolatuz, faseak orekatuz eta elektrizitate hornidura hobetuz.

Horretarako, 40 CIRCUTOR kontagailu jarri dira energiaren azterketa orokor bat egin eta eraikuntzen kontsumo mota ikusteko, argiztapena eta gainontzekoak. Kontagailu guztien batura kontagailu orokorrarenaren berdina da, eta horrela energia guztia kontrolatzea lortzen da. Gainera, kontagailu orokorraren fakturan, hilaren lehen egunean aurre-faktura bat lortzen da.

Badira urte batzuk Goi Eskola Politeknikoa azpiegitura elektrikoak hobetzen hasi zela eraikuntzen araudia betetzeko. Gelak berregokitzeko egin diren obrez baliatuz argiztapen mota aldatu da, lehengo fluoreszenteak kendu eta balasto elektronikoa duten kontsumo txikiko lanpara konpaktuak jarri dira. Modu honetan, epe luzera egindako inbertsioak amortizatzea lortzen da eta gainera, hainbat datu jasotzen dira, esate baterako, zenbat aurreztu den aurreko kontsumoetan, horrela konparaketak egin ahal izan dira.

Energia kudeatzeko sistema honekin boltaje mota guztiak ikusi daitezke, faseen arteko korronea, potentziak eta energiak bai aktiboak bai induktiboak edo itxurazkoak eta baita potentzien faktoreak. Garrantzitsuena, guztia momentuan, denbora errealean, ikusi daitekeela da. Alarmak ere sortu daitezke tentsio puntak eta energia kontsumo reaktiboak detektatuz, hauek fakturan gainkarguak sortarazi baitiezagukete.

Goi Eskola Politeknikoan hornitutako energia egokitu eta aprobetxatzen saiatzen gara. Azken batean errendimendu elektrikoak hobetzea da helburua, energia aurrezteko.

